

GARRANTZIZKO INFORMAZIOA

Auzolan Ekintza honetan parte hartu nahi duenak aurrez izena eman beharko du. Bi bide daude izena emateko, 943-466142 telefonora dei eginez edota email bat igorri liteke jarraian adierazten den helbide elektronikora.

idazkaritza@aranzadi.eus

Auzolan Ekintzetan bai eta irteeretan izen emateko epea, ekimena burutu aurreko ostiralean amaitzen da 13:30tan.

Mendiko botak eta berokia eramatea gomendatzen da.

Garraio eta otorduaz antolatzaileak arduratuko dira.

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



Ayuntamiento de Hondarribia
Hondarribiko Udala



TXINGUDIKO APO LASTERKARIAREN HABITATA EGOKITZEKO AUZOLAN EKINTZAK



**MIKROHEZEGUNEAK: FISIKOKI TXIKIAK,
BIOLOGIKOKI ABERATSAK**

Putzuak, askotan bestelako zerbait pentsatzen badugu ere, hezeguneak dira eta aniztasun biologikoaren zati handi bat gordetzen dute bere baitan. Hezegune handiak, animalia eta landareri espezie asko gordetzen dituzten ekosistema hauskorak dira, hargatik, babestuak egon ohi dira. Hala ere, espezie askorentzat hezegune handi horiek baino garrantzitsuagoak dira inongo babesik jasotzen ez duten urmael, putzu eta baita zenbait uraska txiki ere, hau da mikrohezeguneak.

Mikrohezegune horiek era nabariagoan jasaten dituzte jatorri antropikoko aldaketak hezegune handiek baino. Sarri zaborra botatzeko erabiltzen dute hainbatek, are gehiago, eman zaien garrantzi txikia dela medio, obrek, kaminoek eta autoek, besteak beste, ez dituzte errespetatzen. Guzti horregatik aldaketa klimatikoek edo produktu kutsakorrek gehiago erasaten diete. Anfibioei, hein handi batean (askotan guztiz) beharrezkoak zaizkie hezegune horiek ugaltu daitezen. Baliteke hori izatea munduko talderik mehatxatuenetako bat izatearen jatorria baina argi dagoena da beren “gainbehera globala” ikerketa gai izaten ari dela mundu guztian zehar.

Egoera larri honen aurrean eragitea besterik ez da geratzen. Arazoa sortu duen eragile berbera (gizakia) izan behar baita konponbide. Horregatik apirileko aste bukaera batean auzolan ekintzak burutuko dira euskal kostaldean dagoen anfibio espezie mehatxatuenetako bati (apo lasterkariari) habitata egokitzeko. Gauetz egingo den irteerak auzolan ekintzaren osagarri izango da.

PROGRAMA

- **APIRILAK 22**

APO LASTERKARIA IKUSTEKO IRTEERA TXINGUDIN

21:30 Plaiaundi Parke Ekologikoko aparkalekuan

- **APIRILAK 23**

APO LASTERKARIAREN KONTSERBAZIORAKO EKINTZAK PLAIAUNDIN

9:30 Aranzadi Zientzia Elkarteko egoitzaren aparkalekuan

10:00 Plaiaundi Parke Ekologikoko aparkalekuan

- **APIRILAK 29**

APO LASTERKARIA IKUSTEKO IRTEERA JAIZUBIAN

21:30 Jaizubia paduretan (San Joakin aintzira pareko aparkalekuan).

- **APIRILAK 30**

APO LASTERKARIAREN KONTSERBAZIORAKO EKINTZAK JAIZUBIAN

9:30 Aranzadi Zientzia Elkarteko egoitzaren aparkalekuan.

10:00 Jaizubia paduretan (San Joakin aintzira pareko aparkalekuan).